# KARDABERAZ

"EUSKEREAK BURUA JASOTZEA JAUNGOIKOAK NAI DU"



IX ZENBAKIA

URTZIZTIKO KARDABERAZTARAK

# Aurki-bidia


ING.

I.- BERNARD DECHEPARE .......................... 2.

II.- AMETS BAT .......................... 5.

III.- GIZONAREN MOROI .......................... 6.

IV.- EUSKO-SENDIA .......................... 8

V.- LATERIA NAGUSI ? .......................... 11.

VI.- UZKURTZA TA MORALA .......................... 14

VII.- ETA BIAR ZER ? .......................... 15

VIII.- EDERTIA TA UZKURTZA .......................... 18

IX.- ?`REN AIMENA .......................... 20

X/- CHR ISTUS MORTUUS EST .......................... 21

XI.- JOSU`REN BERBIZKUNDEA .......................... 24

XII.- KISTO`REN OÑORDEKO .......................... 25

XIII.- ANDIK ETE EMENDUK .......................... 28.

XIV.- GORIÑAK JOTA .......................... 31


1936, Jorailla

# Bernard Dechepare

"ECIN FCRIBA CAYTEYEN"

"Berce gendex vfteçuten
Ezin foriba çayteyen
Oray dute phorogatu
Euganatu cirela"

Ona emen gure Etxepare'tar Bernarda azkaŕa; oŕa or bere lana. "Berce gendeo vfteçuten, ecin foriba cayteyen..."Ezezt ? -esan bere kolkorako ta-laster ikusiko dozue euskeraz idatsi daiken ala ez, dirautsoe euskaldun guztiei.

Ujoldeak auŕean daruana pendizera edo ondamendira duana ezagutu eban gure Etxepare'k. Ezagutu bakaŕik ez, ujoldeari albora alde be bai. Ujoldeari alde eikionik ez ete ekien beste euskeldunak ? Iñoz aldeten asi al ziran baña ?

Uraren erara juatea zer zan Etxepare ber-berak diñosku bere "LINGUAE VASCONUM PRIMITIAE" idastiaren asieran.

..."bafcoak baitira abil animos eta gentil eta hetan igan baita eta baita foiencia guoietan lettratu handirik miraz nago launa nola batere ezten affayatu bere lengoage proprearen favoretan heuscaraz cerbait obra eguitera eta foributan imeitera ceren ladin publica mundu guoietara berce lengoagiax beçala hayn foribatzeko hondela....."Euskerak entzute gitxi iñork ezeridatzi ez ebalako eukala dirausku ondoren eta oŕdatzi ez gañera..."eta berce naolone oroo vfte dute ecin deufere foriba dayteyela lengoage hartan..."

Gaztelaŕak eta pantzetaŕak eurak be gai sakonak lateraz idatzi oi ebezan aldi aretan. Ostingo gaietan erdera be egiten eben. Euskeldunek ostera auturik azal eta lauenak be erderaz azaltzen ebezan.

Euskera be edozein lanetarako beste izkuntzak baizen gai zala adierazotea izan zan Etxepare'ren burubide ta egingoa.

Oŕetarako euskerazko lenengo bere"Linguae Vasconum Primitiea" idatzi ostean...."oray dute phor-

ogatu, euganatu çirela..." egiz esan eikean.

Besteen erara jokatzea mundu onetan urtepiderik lauena da; aintza-bidea baña beste bat yatzu ene irakurle; bestien arauz ibilteka guztien-alderaunkira edo kontrara egin eta gero beste guztiok norbere ondoren ekartea, orixe da aintza-bidea. Bide aldats eta saŕa. Ori egiten daben gizonak bai eintzagaŕi ta goragaŕiak...

Onein arteko dogu Etxepare jauna be. Euskotar txalogaŕia; euskeraz idazten lenen asi zan euskelduna. Beroŕen ezaupide izan dagizuzan izpar batzuk emen.

"OHEUFCARA LAUDA EZAK GARAÇIGO HERRIA"

Etxepae'ren jatoŕia ta abizan oŕen goi-beiak alde batera lagako doguz, gauza garbirik iñork be ez daki-ta.

Saraskeŕa Etxepare'ko semea dogu Donibane Garazi onduan dagon Eihelaŕe'koa. 1518'ko agiri batek darekuskunez bere jaioteŕiko Eŕetore zan. 1533'gnean bizi zan ausago; urte oneteko agiri batzuk "Bertrandus de chaparre -sic- rector sancti Michaelis veŕeris" izenez izenpetuta doguz ta 1559'gnean be agiri da "maestre bernard de echepare" izenpedun idazti bat. Gure olerkariok ete dogu ? Beste agirietan lez bere izenaren ondoren "Rectorem Sancti Michaelis Veteris" ipinten ez dauanaŕen, ber-bera izan daikela diño Urkixo jaun astarle argiak, "Introducción al "Linguae Vasconum Primitiae" idaslenean.

Etxepare ber-beraren aitoŕez aldi baten BEarne'n moŕolopean edo kerizpean egon zana be badakigu oŕatiño. Zergaitik atxiŕotu ebenik ?

"Heldu veharduyen gauçan ezta efcapaceric
Nik oguenik eznuyela hongui guitez verceri
Bide gabec harituru uide eznuyen leqhutic
Erreguceri gayzqui faldu guertuz oguen
gaberic."

Orixe dirausku "Moffen bernat echaparere cantuya" olerkian. Beratxoago beste zeozertxu be ba'diño: guzuŕezko zalakuntzaren bat egin ete eutsen ?

"Falfu teftimoniotic ecin ehor veguira
Halaz condemnatu çuten ieyncoa erekilcera..."

Beste toki baten be "bire gabe handia" egin eutsela diñosku. Zein izan eikean baña bidegabe

keri ori?

Ērrik gabe gurutzaldu eben Jainko maitiagaz burua bat-egiten dau bedořek. Ber-beroi juan ei zan gañera arerīuen eskuetara:

"Ni gayxoa exayari ni haur giniz eřcura
Ene vnfa eguinac ere oray oro gayzdira
Haren menian ezpanengo nic nuqueyen cucena
Miraculu vanegui ere oray ene aguena."

Vinson jaunaren ustez olerki lizun eta nabarmenak egin euzalako edo bere bizimodu biuř eta loiaren atxilotu eben.

Huarte'tar J.M.'ak "EUSKALERIAREN-ALDE" aldizkingian darakuskunez ta Aitzol argiak "YAKINTZA"n diñonez politika auturen bat izan eban. Indařez Nabařa eskuratu eben España'ko Ēregeen aldeko genduan Etxepare ta aren aldo-edo zerbait egin ebalako kerizperatu ete eben uste dabe ořeik.

"Erreguerı daquidala nic eztieit faltatu" diñausku Etxepare ber-berak len aipatutako olerkian. "Eregeri faltatu" baña era bitara ulertu daike. Orduko itz-arauz "Eregeri faltatu", "faltar al Rey" eta "faltar a la Ley" izan daikela diñosku Urkixo jaunak.

Dana dala, gure Etxepare'k naiko eruapen izan eban kerizpe aretan, bere olerkietan darakuskunez:

"Hongui eguitez gayz fořrituz vehardugu salvatu
Pena eta miferia nic enuyen dařtatu
Oray daquit iangoycuac enu nahi domnatu
Heben ene penacera caydanyen orhitu
Vrhe hunas veharдicl fuyan unfa purgatu"

Ořa zeñen ikaspide edeřak damoskuzan. Merezi ebalako sartu ba'eben be, gaiztakeria alde batera laga ta berak damoskun ikasbidea oneritzi daigun

Caña.

1545'gn. egin zan lenengi elaztaldian -edición- dakusgun idazkeraz jaři doguz Etxepare'ren ařaltxuok. "Ç" dagon lekuan "Z", ta "F" ořeik "S" irakořiko al dozuz, enen irakurle.

Gaurko naiko izan jaku ta uřengoan astertuko dogu "Linguae Vasconum Primetiae" idazti ori.

# Amets Bat

Ura amets zoroa ---
Bart egindakoa...

= = =

Mendiruntz nuan
aŕats batean...
izaŕak
algaraz
paŕez
nigana
etoŕi
ezetz ?
Ilargia
aseŕez
adaŕez
nigana
etoŕi
ezetz ?
Zuengana
jun
baietz.
Nere
erantzuna...

= = =

Iritzi naiz
bat-bat ean
mendi gañera.
An dago zain
laño mordoa...
An etzanda
ilargiruntz noa...
Emen nauzu
adar zoŕotz gañean
bizirik
zuŕik
Oldozpen naste artean
zelan iritxi
izar gañera.
Izaŕak
algaraz
paŕez
nigana
etoŕi
ezetz ?
Zugana
jun
baietz
nere
erantzuna...

= = =

Zast ¡Ankak jaurtiki
izaŕak ikusi
ta burua ebaki

...............

Loa igesi
begiak zabalik
ez detbear izaŕik
ez da ere onelako
amesik

= = =

Zenabat aldiz
biotz-egaŕiz
lo egin barik
jolas gabiltz
olako ames
txoroakin....

############ ##########

##############

# Gizonaren Muŕil

Gizona, sendia , ta gizartea: Iruroiek ditu u ezagunak; aspaldiko lagun zaŕak ditugu. Zer do zer ezagutzen det beintzat nere buru au; sen- ia ere... aita ta ama begiko ditut; gizartea beŕ- z. ortxe bizi ere gaituzu ta...Ez naiz beintzat alduko.

Zein ote dezu iru oietan irakurle oŕek nau- i ? Zein jotzen dezu zuk ? Gizona, sendia ala gi- rtea ? Ez didazu ezpairik ere; galde egin ala rtxe zenduan españetan erantzuna; gizona alegia. ik beintzat ori dizut. Gizonak gere burua maitee- i ere ba degu ta, ez da aŕitzeko ortik jo izatea; uzokoaren ajola gutxi baño ez degunok nai ta nai- zkoa genduan erantzun ori. Ala ere, ezan alak e- an, naizeta askotan geron burua maiteegi izateoŕ- k oker-bidetik jo-erazi; oraingo onetan, ziuŕ i- an zintezke, irakurle ori; zuzene--tik jo degu

Sendi ta gizartearen bikaña ukatzerik ez dago endirik gabe ez litzake gizonik; edo beintzat gi- ona gizon egiten eramango dionik ezda. Gizona azi a ezitzen ez dio iñori ere zoŕik sendiak. Bikaña dezu benetan sendia.

Eta gizartea ? Gizartea edo deleko au ez di- zut, lan onetan beintzat, giza-nasbil uts; agint- ari, buru, esku ta guzi baño. Sendi aundi baten antzeko alegia. Gizartea ere bikain dezu. Berez du gizonak gizartera naia; ortarakoxe joera berezia duzu; lagunkoi gaituzu gizonok. Noski. Adimen ar- gia bait du gizonak; gure adimen ori egi-gosez ezin ase degu, eta zer edo zer ase al izan dezagun gizartera jotzen degu. Baña gizarterik ez ba litz -agintaririk emen alegia- lur-jota giñake laster guziok; gizonak bear-bear degu gizartea. Baña ,egia egiari zor, gizona ala ere bikañago ta aundiago dezu; gizon, sendi ta gizarteetan nausi gaituzu gizonok.

Aundi ta bikain dezu sendia; Baña galderatxoa irakurle oŕi: Nundik datorkio sendiari oŕen bikain eta aundi izate ori ?

Aŕi bakar bat ez dezu ezer; aŕi askok, ordea,

etxe bat egin lezakete . Ori al da, beraz, sendiaren bikain eta aundi izate ofen jatoria ? Ori ofela izan ezkero, seme geiago eta sendia orduan eta bikañago izango genduke; baña sendiaren bikaña diogunean berdin zaizkigu guri guziak. Sendia bera da guretzat jator, ats eta bikain; ez onelako ta alako sendirik. Egia; seme asko dituan sendiak asko lezake; seme gutxi dituanak baño geiago. Noski. Asko beti asko; beti bat baño geiago Baño, zertan ? Esan bearik ez dizut. Alkari-lagunduaz, etxea goi-goi jasotzen; soro, belar, baso t.a... txukun-txukun izaten, erameten dio sendi aundiak txikiari;.. Eta beste zeinbait gauzatan. Eta zer ? Ez da ori sendiaren goragafirik goragafiena; ez du ofek sendia gaiko maia ofetan jartzen; ez da baseria txukun eta garbi izatea sendiaren bikein izatearen jatoría; ez da ori sendiaren egiteko berezia. Al izan ezkero obe; baña ori gabe ere jator eta bikain degu sendia. Sendiaren bikaña diogunean, bada, ez diogu ori jaramonik egiten. Zein ote da bada sendiaren mamia Jira-biraka-edo, erdi-ipurdizka-edo goraxeago esan dizut. Sendiaren bikain eta guria gu-gerok gaituzu: gizonok alegia. Gizona aundi ta bikain dalako da sendia ere bikain eta aundi; gizonok egiten degu sendia bikain eta aundi. Kendu akiozute sendiari gizonen aundi ta bikain izatea; eta uts eta argal utziko dezute.

"Sendi ta lateririk gabe bizi al izango balitz gizona, alpertko gauza lirazke bi oiek, eta ez ziran, sortu ere iñoiz egingo ", Iztueta jaunaren itzak dizkitzut. Ortxe dezu irakurie ofek sendiaren mamia. Sendia gizonentzat dezula; sendiaren egitekoa gu gaituzula; sendia berez ezer ere ez dala alegia.

Gauzen mami ta guria jakiteko; gauzaren bat egokia den ala ez jakiteko; gauzaren baten aundia jakiteko, elburuari begira oi diogu. Gauza aundia degu baserie , gizonaren bizi-leku da ta; baño askoz ere aundiago, oraatik, Eliza edo gizona bere Jaungoikoaren bizi-leku dira ta. Zein da beraz sendiaren mamia ? Zein da sendiaren aundi izatearen jatoria ? Elburuari begira. Sendia gizona egiteko da; sendiaren elburua gizona egin eta gizona aziitzea da, gu gera beraz sendiaren elburu, mami ta sendiaren aundi izatearen jatorí

# Eusko sendia

(Erdi-aroa)

Euskal-Sendietan senide bakaŕa gelditzen zan etxeari jaŕaitzeko. Beste senideak beren bizikera artu ezkeroz, bakoitzak sendi beŕi bat artzen zuan. Oitura oni beti eutzi izan dio euskal nekazariak; baita artzaiak ere.

Gurasoak, sen ordeko seme edo alaba eta beste senide ezkon-gaiak: oŕa or euskal sendia.

Euskal eŕiak edesti auŕeko egunetatik gaudaño bere sendotasun eta kemena sendiari zor dizkio.

Sendi au uzkurtz-zalea da benetan; eliza, etxean eta lagun artean zaletasun au garbi agertzen du; lengo zaŕak ere eroimen itzaltzua agertzen dizu.

Gurasoen artean ez da nererik eta zurerik; ondasun guztiak bienak dira. Batak bestearen baimenik gabe ezin dezake ezer egin; oitura jator au euskal eŕian bakaŕik daukagu.

Antziñako euskaldunak, artzaiak izanaŕen etziran beste artzai-eŕik bezela etxe eta uri gabekoak, ludiaren beste bazteŕetan ala izannagatik.

Negu edo udaren ardiak batetik bestera erabiltzeko etxe jakiñak zeuzkaten.

Gure baseŕiak oñaŕi sendoak dituzte; aterpe zabalak askotan ordea ukulua sendiagandik gortugi.

Garai artan ardia besterik etzan azitzen. Janantzie-tarako bear ziranak: esnea, aragia, ilea eta beste milla gauza, artaldeari kentzen zitzaizkion. Ardi-lanak ziran eguneroko eginkizunak.

Euskal sendia sendi ugaria dezu. Euzkadi'ko artaldeak erabiltzako ezik, gudarako ere ainbat lagun ematen zituan.

Artean luŕak danenak ziran; etzuan bada bakoitzak beretzat izendadutakorik; artaldeak muga-gabeko sail zabalak eskatzen bait zituzten. Zugaitzak ... datzen zituanarentzat izaten ziran bere igali ta ... guŕak. Ortatik datorzzkigu muga-eŕiak; lenengo

zugaitzen jabetza agertzeko sortuak ditugu; geroago lurena.

Ondoreangoak izendatzeko eskubidea.

Euskal sendiaren beste ezaugari bat auxe da. Eta zer da bera? Gurasoen eskubide bat da; eskubide onen bidez gurasoak nai dutena aukeratu dezateko etxerako. Oso gutxitan aukeratu oi dute etxeko semia ez danik. Onena aukeratzeko ez da gurasoak bezelakorik. Iñork baño obeto ezagutu ditzakete; ezkondua edo ezkongaia izan bear du ordea.

Oñordekoa ezkontzian, gurasoak bere gain uzten zizkioten etxeko gora-berak; beretzat etxeko gauzak. Beste senideai zerbait dirutan ordaindu beaŕa ezaŕi oi zioten, baña.

Lege batek aiñbat indar agertu du oitura onek euskal eŕiak 11 gaŕen gizalditik gaur arte, Leizaola'tar J.M. lege gizonak agertu digunez.

Napar-lege nagusia edo "Fuero General" deritzaion 13'ŕen gizaldiko agiriak onelako eskubiderik ez du izendatzen ere. Ayalako "Fuero" edo legeak, ordea, andik laizter 1373 gaŕen urtean legetzat artua zeukan baño napar-lege-nagusiaren garaian eta lenago ere ba zan eskubide au Euzkadin

1077'ko Jakataŕen lege-zaŕek izendatzen du, ta lege onen eŕoak zîran euskal eŕiko beste lege edo "Fuero Vasco", batik-bat Lizaŕateŕena eta Donostiaŕena.

Donosti'ko lege au bera artu zuten 1211'gaŕenean getariaŕak; gerozea Zumaya'taŕak, Mutriku'taŕak; Erenderin, Irunen, Oyartzunen, Ondaŕabin, Kastelonen, Sanguesan eta Iruñan. Eŕi oen aldamenekoak ere lege berak erabiltzen zituzten. 11'gaŕen gizaldia ezkeroz ba'degu euskaldunok lege au.

(Aro-beŕia)

Euskal sendia garai ontan ere lengo erakoa da; kementsu zoŕtua dalako ez du geroztikako ereskin beaŕik izan. Lefebre'k dionez, Napaŕoan sendi bakoitzak bost lagun ba'ditu bataz-beste. Gipuzkoa, Bizkai ta Pantzetaŕen menpean dauden euskal sendia onenbeste bai gutxienez.

XVII'gaŕen gizaldia ezkeroz asko ugaldu dira

bataz-beste gure sendiak eta eríak; ala ere, izan dituzte beren gora-berak. Lanarekin ugaltzen ziran, eta langabez gutxitu. 1846'garen urtean Bizkaian Klm2/ bakoitzean 74'biztale ziran; Gipuzkoan 83; Lapurdi ta Zuberoan 50 gutxi gora-bera.

Nekazari erietan artoa ereitiak ekari zuan eri-ugaltzean. Itxaz aldean beriz XVII'garen gizaldetik 18'garenaren erdi aldera arte izan ziran bale ta bakailo-arantzak ugaldu zituan biztaleak. Gerozik, ordea, Holandarak itxaz lanetan atzerapen aundia eman zieten euskaldunai ta urte gutxiren buruan eriak beriro asko saildu ziran. Baionan 50 urte inguruan 22.000'tatik 9.000'taraño gutxitu ziran. Donibane Loitzunen 14.000'tatik 4.000'taraño.

Zadora, Arakil eta batez ere Ega ta Arga ibai inguruetako eriak XIX'garen gizaldiaren aurenetan azi ziran. Askok ordea, emen zer janik ez ta Ego-Amerikara jo zuten; XVII'garen eta XVIII'garen gizaldietan batez ere. Baña 1785'an eregeak Ameri-ka'runtzko erteera debekatu egin zuan. Beriz ere 1832'aldean indar aundia artu zuan. Bizkaitik bakarik 1910'an 7177 juan ziran alderdi aietara. 1912'tik 1916 éra bitartean Arabatik bakarik 4877; Napartoatik 14319; Lapurdi aldetik 3883. Geienak bearagatik zijoazen; eta geienak aberasten ziranean beriro beren txokoetara etori oi ziran.

Gudetara ere euskaldun asko zijoan; ta ez makalak gañera etziran arazo aietan... Bazan bastar gustietan euskaldun gudarien beririk.

Nekazaritzak auterapen aundia artu zuan Ameri-ka azaldu zuten ezkerotik. Ordutikakoa degu artoa ereitzea. Artzaintza gutxitu ta nekazaritza ugaldu zan. Artaldeak ainbat esne ta aragi edo geiago beiak ematen bait zion nekazariari; lana askoz gutxiago; ta lagundu artaldeak ez bezela.

Liñuak ere oi zuan lana, ta ez labur-labura; negu guztirako sendiarentzat naiko zer-egiña ba zuan berarekin. Soroan ebaki ta eun-zuri biurtu arte amaika neke bai.

(Daraike)

# Lateŕia nagusi?

Eleizea ta lateŕia gizonen eburua jadesteka zortu izan ziran batzarakdozwz. Onetxek dire be kotxa bere zeiĺean batza nagusiak gizonen artean. Lateŕia gorputzeko onaren biĺa dabil. Eleizeak arimaren zoruna nai dau. Ba ete dabe alkaŕega zer-ikusirik batza bi onek? Ta elan izatera, nolakoa da artu-emon ori? Au da nere jardun onetako gaia. Askok nai izan dabe Eleizea azke izan deitela bere tokian ta berdin lateŕia be bersan. Zertarako bata-bestien ganako artu-emonak? "Ecclesia libera in statu libero" etz egien liberalak. Bakotxa bere tokian ta bestiari eŕ kenpon eztat? Alan dirudiela esen leike, baña ez dago olakorik. Lenengo Eleizeagandik aldendu ta gero espian artu, ori bai da olakoen asmoa.

Emen aitaturiko lateŕia, Eleistaŕa dana ez as? Erabagi daigun len jaŕitako espala. Eleizea eta lateŕiagandik adiendutz egoteko sortua.

Batzar asko bata-bestiaganako artu-emonik bari ederto bizi direla, zeuk dakuzkezu eduan irakurleo. Langillen batzar batzuek ze artu-emon dabe ederzalien arteko batza bategaz? Ezertxo bere. Baña Eleiza ta lateŕia gatik ezin giñeike ori ezan. Onek biok bata bestiari lagundu beaŕean dagoz. Ori ez egitera, nok daki zer izango litzake onen bion artean?

Gizona arima ta gorputzez osotutako izakia dogu. Bere gorputzeko bear izan gustiak ezin eikie bakaŕik erantzun ta beste gizonekin alkaŕtu zan. Batzar ori baña, nork zuzendu? Orétarako jaŕi eben jakitun aldra bat auren buru lateŕia. Onen egin beaŕa giza-batzako goraberak zuzendu ta gizonen gorputz aldeko ardurea dazi.

Badau gizasemeak beste sati bat be; arima iĺezkoŕa. Beraz emen dago beste zati bat nun landu. Alderdi bikain onen ardurea Eleizeak dau... Zeiñen egingoa dan bikaiñagoa, gero ikusiko dogu.

auk ikusi izan dozunez, gizona batza biren zatia
dogu.

Begira batza bi ořetara ta entzun eurak di-
auna: gorputzaren arduraduna naz ni, diño batk:
arimearen zaindaria nozu, diñosku besteak...Ar-
miarena bizitza ala gorputzarena dira nagosi ?
men biotatik nagusiago danaren ardurea daukan
atza izango da nagusi ta bestea bear dan eran
ren menpeko.

Gaitz batek auts biurtzen daben gorputza ala
rima ilezkořa da bikañagoa ? Txanpon ugar bat
itxirik edeřenaren ondoan geiago da , gorutz us-
elkořa arimearen ondoan baño. Gorputz ořen ardur-
a lateřiarena dala esana dogu, ta arimeagazkoa
leizearena. Bikañagoa da beraz a Eleizea lateřia
año. Nori jagoko bestearen esanak betetzea ?

Elaizea goragoko mailakoa dala-ta, geiagako
arik, lateřia aren esanera egon bear dabela, esan
te leike ? Ona emen zer diñoan gauz oni buruz
uarez Abak. "Aunque la potestad eclesiástiva sea
más exelente en perfección que la potestad civil,
no se infiere desde luego que sea también superior
en subordinación y jurisdicción propria;porque
bien puede una facultad ser menos perfecta que o-
tra, y sin embargo no estarle sujeta y subordinada."

Egi biribilaau .Lateřia gorputz gora-beren zu-
entzalea danez; bere tokoan bera da nagosi. Alder-
di onetatik aske bizi da bere saileán. Gogoratu
baña, lateřiaren menpeko ta Eleizearen arduràpeko-
ak gizon ber-berak dirala:arima ta gorputzezko izaa-
kiak. Eta onek bere azken-zoriona jadestea dauke
elburutzat. Ori dabe arlorik gorengoena, betiko
zoriona. Gorputzeko bizitza gerokoa jadezteko bide
bat baño ez dau gizonak. Emengo bizi tza amaitzen
danean beste baria asten da lengoaren jarai. Goi-
koak bekoa osotzen dau.

Zer-ikusi aundia dauke ba, bizitza biok. Eta
gañera emengoa gerokoaren asiera baño ez da. Bizitza
biok ondo lotuta, ezin geiagoan, dakusguz. Bardin
izan bear dabe bizitza bi ořsin arduradun batza bi-
ak bere.

Gorputza arimearen elburuari jagokonez beronen
menpean izan bear daben eraz, lateřiak be Eleizar-
en elbururik ezin eragaotzi daike ta Eleizeak bere
elburua lortzeko bear dabezan guztietan lagundu
egin bear dautso,

# Izkurtza ta Morala

(Jarraipena)

NIGRIZIA.- "Olorum" -Zeruetako Jauna- deritzan jaikoa gurtzen dute Niger ibaiaren araneko Jorubak .Jaungoikoaganako itzal ona, senar-emazteen arteko zintsotasuna, arotzei abegi ona Jainkoak aginduak dira. Berak debekatzen ditu giza-erailtzeak, lapurkeri, astikeri, izorkeri, nerberen-buru iltze t.a. Onari saria,gaiztoari zigorra damaio .
VIRGINIA'ko "Pawnes'ek" Ti-ra-wa, guzien egile ta eoaile, lapurak goroto dituna,dute Jainko.
INDO-EUROPAT.RAK.- Eguzki,ilargi,su,zeru,ekaitz ta Izadiaren indar nabarmen guziak gurtzen zituzte Jainko bezela. "Dians-pitar" -zeru-aita- zuten Jainko nagusia. Izen ortatik sortu ziran Eromataren Jupiter, grekotaren Zeos ta alemandaren Toi. Onak saritzea ta gaiztoak zigortzea indo-europataren Dians-pitar ta eromataren Jupiteren gain zegoan.
AINTXINAKO EUSKALDUNAK indo-europataren uzkurtzri ez zioten alegi txarik egin. Dians-pitaren ordez Urtzi zuten gure arbasoak Jainko. Biak bat dira.San Juan eta Gabonetako suak, San Juan-arbol atarietako lore ta zugaitz adarak eta abar...indo eurapataren aztarnak dira. Baña oiek guztien azpitik badegu beste zaragoko uzkurtz-gai sail bat. Sinisteak ugari; Mari'ren inguruan geinak. Mari dute jo-muga siniste oiek. Emakume-gorputz eta egazti-ankak ditu Mari'k. Leiza-zuloetan bizi da; ta askotan zaldi,aker,ari entzean azaltzen oi da. Gizonak Mari'rekin onak ba'dira, egi mardula bialduko die bestela aria. Beru da Moralaren zaintzaile, ta gezur batez ere zigortzen du. Baieztik eta ezetztik bizi oi da.

Gure erian ere Morala ta Uzkurtza bat egiñik agertzen zaizkigu.
IRANIOAK.- (Indo-eurapataren senideak) "Auramazda" iraniotaren Jainko nagusia,omen da zeru-luren eta gizonen egilea. Dana daki, dana dakus. Moraleko aginduak ezari diozka gizonari "Auramazda" k. Nausikeria debekatua da; baña batez ere gezura. Iraniotan uzkurtz-zaarena|orixe dezu,Herodoto'n aoz.Gerok

goa da.
MAZDEISMOA: Bi jainko nagosi: Gaizkiña ta Ongiña
Gizona bien artean dago, ta Ongiñaren (Mazdea)
alde jokatu bear du. Egoera ortatik datoz ere
Moraleko bete-bear guziak. Zintsotasuna ta gizakunde-zer-ikusietan garbitasun aundia dira onbideerik onenak.

Babiloni ta Asiriotarak Jainkoak gaxoekin zigortzen dituzte gaizkileak. Eta gaxoak sendatzeko ziran otoitzetatik batek auek dio beste batzuen artean.

"Nik deitzen zaituztet, Jainko aundiak, gaxo dagoanzeren semeatik. ?Beree Jainkoa mindu al du?... "Bai" "eseren" ordez, ala "ezer" "bai" n" ordez esan al du?... Lagun urkoaren eder, ala "ezetz" "bai" ñen ordez esan al du ? ... Lagun urkoaren emaztearengana sartu al da ? ... Iñor il al du ?... Etaiñoren sonekoa ostu al du ? ... Astikeririk egin al du ? ... ta abar orelako.

EGIPTOTARAK.-Tebas'ko Loratz-ariak -estelas- Jaungoikoa altsua dala ta gauza guzien ardura, gizonarena batez ere, ba duala diote. Nekealdean Jaunarengana jotzen ba du gizonak, entzunetzango da bere eskaria. Beste guziena baño Jaungoikoaren laguntasuna obea da. Oregatik maitatzen dute gizonak. Zuzena ta eginbearetik makur eziña da Jaungoikoa. GIzona ordea berez galbidera jotzen du, ta ez daki ona txaretik alderatzen. Tzarkeririk egiten ba'du zigora du gaiñean. Oregaitik zigortzen ditu Jaungoikoak gaizkile ta gezurez ziñatzen diranak.

TXINATARAK. Jesukristo-aureko XXIV'tik XII'ra bitartean Zeru, Goi-goitiko zeru, Jaun, Goi-goitiko Jauna deritza jaungoikoa zuten txinarak. Berak eman eutsi ta kentzen zuan bizia. Bera zan lege guzien egile. Gizon guziak ditu begien aurean, bakoitzari bere irabaziaren neurian emateko. Bera da epaile. Bera ugaritasun eta ondasun guzien ituri; Berak sortu eragiten ditu uri aldi ta nekaldiak ere.

ISRAELTARAK.-Israel'ko Erkaba'k "El Shaddai" -alguztiduna- Jainko bakara, luraren eta gizonaren jabea gurtzen zuten. Jainkoa da Moralaren zaintzailea. Jainkoaren izenean zin egiten zuten; "Zabiltz zuzen nere aurean" dio Jaunak bere eriari. Ikusitako ebreotaren uzkurtz ta Morala erkaben aldikoak dira. Gerora Jaunak amar aginduak eman zizkion Moises'eri.

## Eta bian zer?

(Jaraipena)

Ukatu egin dau gizadiak Jainkoa. Jainko barik, baña, ezin bizi daike gizonata guzurezko Jainkoak artu dituz egizko Jainkoaren ordez. Indara, lizunkeri ta arokeria guzurezko Jainkoadgaz naguai dira. Arokeriaren eta lizunkeriaren seme dogu bakoitzkeria Bakoitzkeri onen emeitzak doguz XIX ta XX eunkiko lateriak. Arokeria daukoe elburu lateri oneik. Aroak baña ezin alkar ondo artu, eta bata besteaganako gorotoa sortzen jakoe. Goizale onen ondorena izan zan Europa'ko guda nagusia ; ortxe dago gaurko laterien alkar ikusi-eziñen sustraia be. Lizunkeriak menderatu eban Eva, arokeriak Adan. "Jainko izango zarie" esan eutson deabuak Eva'ri. Ikustatu eban sagara; zeñen edera ta gozoa zan... artu ta jan eban; Emon eutson bere senarari (Jainko izango zarie, durundika ebilan aren belarietan) ta onek be jan eban. Gizadiaren galgari izan zan sagar ori. Lizunkeriak eta arokeriak jan eragin.

-o-o-o-o-

Jainko bat autortu izan da erdi-aro guztian; gaur baña lateri bakoitzak bere Jainkoa asmatu dau. Euren Jainkoak asmatu dituez Alemania'k, Italia'k Francia'k. Baña Alemania'n, Italia'n, eta Franciañ Jainkoa ez da kristauen Jainkoa; ez dira egizko Jainkoak; bide okeretik doa gaurko gizadia.

Zelako igaliak alako zugaitza, esan eban Jesus'ek. Zelako irakatsiak alako egikerak, esan geinke guk. Igali txarak damoskuz gaurko lateriak. Bai, azi txara erein da-ta, ezin emon garirik.

Abertzalepean ipiñi daroa lateriak uzkurtza. Egiazko oñaria dauko aberiak, ez dau baña ukatu bear egiazko Jainkorik. Jainkoa ez da laterikide, lateri danen gain dago.

Arira gadizan orain: Barri-aroa -Lutero- XV'gn gizaldian jaio zan Lutero. Okan, Ally ta Biell'en ikaslea zan. Zer ikasi eban esan biarik ez dago. Lagunik izan ezpa-eban baña Lutero ezan izango Lutero. Lutero'k azia erain eban-berak bakarik ez- baña beste askok lura landu ta apastu eben. Erege ba-

adimenak ez dauko zer-ikusirik zentzumenegaz.

Descartes adi--men-zalekeriaren aita, (Materialismo,Positivismo ta Empirismona Bacon) benetan tan seme buru gabeak euki dituez guraso oreik.

Zenbatu ala dira Bacon'en ikasleak. Ona emen euretariko batzuek:: Inglatera'n, Hobbes -I679- Locke -I704- Shaftesbury -I73I- Stuart Mill, Darwin, Spencer.....
Francia'n Condillac, Lamettrie, Montesquieu, Rousseau, Voltaire,Diderot, Danton, Compte, Littre, Taine...
Alemaniam: Fenerbach, Straus, Vogt, Molescot, Haeckel....
Italian: Lombroso, Ardigo t. a....

Gaur bertan be asko taasko dira onei jaraitzen deutsenak.

Ori asko bearko neukez gizon oren ondorenak aztzeko. Ondoren bat edo beste aitatuko dogu emen. Francia'ko matxinada Rousseau, Voltaire, Mirabeau' en irakatsien emaitza dogu. Robespierre'k, Danton' ek eta beste orein antzekoak bete ebezan arein esanak. Odolez ta lotsabakokeriz loitu ta zikindu eben Francia'ko lur guztia. Zeinbat eru gabe il ebezan iñork ez daki; zenbat Eleiza ta zenbat lekaime ta neskatila loitu ebezan nork esan ?

Gaur bertan ikusten digun kizunkeria, Jainkoaganako amorua ta gizadiko lotsabakokeria irakatsi oretatik jatorkuz. Alemania'n. Francia'n. Ipar- America'n....kristau ikasbidearen aurkako batza asko doguz, kristau oitura garbiak loituteko alegin biziak egiten dabezan batza lotsagariak.

Alemanian bakarik 4.000 000'tik gora dira naru-utsik ibilteko izena emon dabenak,eta Alemanian bero aundirik be eztau egiten....Barcelona'n be ain-bat onetariko "naturistas" doguz.Uri onetan bakarik 33 ikastola "sin Dios" doguz.

Sendia zatitu ta gizona abereen mailara eratsi gura dabe.Zelako gauzak egin,ikusi ta entzuten dabezan esan bearik eztago.

# Edertiñ ta gotikuordua

Eginkizunak ongi egiteko modua ederti bakoitzeko arauei jarraiki, orixe da Edertia. Edertia aspaldikoa da, ez dezakegu eran kristautasunakin sortu denik, bañan bai zuzendu ta edertu.

Ludiko eri guztiak ba dituzte Edertiak, batzuz besteak baño ederragokoak, ala ere beren gur-gauzak, ahalduten bezein ongi egin naiez denak gogo baten gibeletik ibilki dira; onengatik ikusten ahaldugu nola dauden elkartuak Uskurtza te Edertia. Eta Uskurtuz guziekin elkartua balin ba-dago, nola ezta egonen ludiko Uskurtzetan egiazko ta ederren den Uskurtz kistarakin?.

Goazen eguzki aldera, gizon guzien iturria bezela baita; eta Kisto etorri bañan 40 eunki lenago ikusten ditugu gizonak, Jinkoaz aztuak eta Berari gur egin bearrean Jinko-aizunei egiten die te askotan Faraon izen duten errege berari.

Zer Ederti izan zezaketen olako gizonak? Etzen ekin adimenetan gauza gogozkorik sartzen, egin zituzten bai, gauza arras aundiak; Faraonen ilobiak batzuk I28 matrotik gorakoak, bañan ori ezta lurreko aunditasuna besterik, non dago eroigai oien gogokortasuna ? an eztago larritasuna besterik.

Kisto etorri bañon V eunki lenago agertzen da Clásico deritzaion Edertia; au bai ederra, batzuk diotenez ederrena. Ortan ikusten dugu gizon langilearen arri-landutzea, zutarrien sendotasuna, baita edertasuna ere eta etxe guziaren azkartasuna, gizonaren adimena gain-eraño etorri dela esan dezakegu. Ala ere kistar elizetan ikusten dugun gogokortasunetik urrun dago.

Kisto etorri da eta ludiko gauza guziak aldatu ziren etorrera onekin, bere eragipena aileatu zen edertira ere, eta lenagoko gizonak lurrera begira egin ba-zituzten gauza ederrak, kristauak lenbizikorik gauza txikiak egiten dituzte, bañan zerura begira.

Lenbiziko eunkietan katakunbetan bil tzen ziran, baña lurpean izanaren zeruetaño eldu tzen ziren aien lan gogokortasunak. Constantino'-rekin askatasuna erdietsi ondoren, egin zituzten Basilika deritzaioten eliz ederak.

Jinko aizunei olako eliz ederak egiten zizkieten eta etzan bakartasuna besterik eleiz areitan; kristauenetan beriz dena bizirik dagola idurj du eta lengoen azkortasuna, guritasun gozo batean aldatua dagola.

Oraindik eliz auek kistoren aurekoak bezein ederak ez badire, laister elduko dire ura bañan aiz ederago diren beste estilo batzuk.

Kristauak ludi guztian barna edatzen dire eta lenagoko Ederti bakartara, non-nai zabaldua ikusten dugu: VII eunkitik toki askotan agertzen dire Edertiak: Ederti kistararen antaira (avancé erakusten digute, prestatzen dutelarik Romanico edertiaren etorera.

Ezta emen gelditzen estilo au borobil erdiko arkuekin ; ezagun da eztela au bere asmoa Gogokortasun gaiago eman nai baitio bere eginkizunei eta "transición" estilotik igaro ta ojivalean aurkitzen gara: au baita gizonaren gogoak egin dezaken gauzik aundiena. Ez dira kistarak gogoz ikusten ditugun katedrale eliz ta lekaide etxeak ? Edertasuna zenbait Edertasun bila dabiltzen jakinzarzaleak kister Edertiari ez al diote begiratzen?.

Esan dugunez ikusten dugu, nola dauden elkartuak Uskurtuz kistara ta Edertia; Uskurtuz kistara XIV eunkian eldu zan gain-gaineraño eta gero tik unatko edertiak etzaizkiote urbiltzen ere.

Kistartasuna galduaz dua, Edertia ere bai.

# 7'ren almena

Amaika siñeste zaur ba'da gure eŕietan...
Bakoitzak bere eŕiko siñesteak zeatz - zeatz batuko ba'leuz...Saŕitan auxe entzun izan dogu: oraingo gizonen erabiltzea ez da eurak euren buruz sortu daben erabiltzea. Oraingo gizonen erabiltzea orain arte izan diran erabiltzeak naastean daukoz. Au onela izanik, ezin ezagutu ondo oraingo erabiltze ori, igarotakoak ezagutzeka. Zelan baña ezagutu ? Nungo idastietan ? Galdera baŕegaŕia bigaŕen galdera ori. Oŕa or berebiziko idastiak, begira eŕi-siñesteai. Goazen idasti oŕetara ta zeroait ikasi dagigun.

"Indo europeo" deritxon erabiltzean sortuta orain be gure eŕietan bizi dan siñeste bat dot nik gaurko gai.

"Indo-europeo" erabiltzean Josukisto jaio baño 2500 urte zabal-zabal zan Europa'n. Jainko bakar bategan siñesten eban erabiltze oŕetakoak; onak saritu ta gaiztoak zigortzen ebazan Jaikoa zan indo-europeona. Jainko oŕen izena, Dyon, Tir, Jovis t.a. Bat zan bai Jainkoa, asko baña ludi onetako gauzen baŕuan sartuta egozan goguak.

Onaemen "Indo-europeo zazpi-aroa" deritxon sasoian sortutako siñeskera bat: baten-bateri muskaŕak arpegira edo papaŕera salto egiten ba'dautso galdua da pisti oŕek salto egin dautson ori.

Muskaŕak bereerpa zoŕotzak arpegiko mamiñean baŕu-baŕurano sartzen dauz ta bein sartu ezkero laister da il gizon edo emakume oŕi. O ŕexegatik muskeŕa ikusten dabenean askok ez dabe iltzen arpegira salto egingo ete dautsoen bilduŕez. Arpegira salto egin ezkero zelan kendu daike ?

Begira: zazpi eŕiko kanpaiak batera jo bear dira ta joten dagozan bitartean zazpi emakume gongoŕik kendu el daike muskeŕa arpegitik; ez dago beste biderik. Eta orain: zentako jo bear dira zapi eŕietako kanpaiak ?

Muskaŕaren baŕuan dagozan gogo gaiztoak bituŕtuta iges egin dagien. Eta zegatik zazpi eŕietakoak ? Aro oŕetan itzal aundia eutsoen "7" zenbakiari. Orixegatik esaten jako "Indo-europeo zazpi-aroa.

# christus mortuus est

Itun-Beŕia'n irakurtzen degun miraririk aun diena, Josu'ren berbizkundea degu, noski. Gure uzkurtzaren oñaŕi irintzen zuan Paul doneak mirari au. Ona Korintiotaŕei egindako lenengo eskutitzaren lenengo atalean zer dion: "Alpeŕikoa gure izkinta ta alpeŕikoa zuen siñesmena Kisto berpiztu ez ba'zan".

Utzi dezaiogun,orde, beste adiskide bateri gai au, ta jo dezagun guk gure gaira.

Josu'ren eriotzak bere berpizkundearekin zer ikusi asko du. Josu'rik il ezpa'zan, ezzan berpiztu egin ere. Eta Josu berpiztu ezpa'zan alpeŕikoa gure siñismena....

Adimentaŕen -racionalista s- artean izan dira Kisto'ren berpizkundea ukatzeaŕen, Kisto'ren gurutzeko erioyza ukatu dutenak...

G.Paulus eta beste batzuk ditugu onen artean. Auen iritziz erdi-ilik edo sena galduta obiratu zuten Josu. Lur ikararen bat izan, nunbait eta iŕobia zaintzen ari ziran gudariak igesiari eman zioten laster. Eta Josukisto bizkortu zanean edo seneratu zanean, iŕobitik irten zan; Ikasle ta emakume onak sendatu zuten orduan. Eta andik aldi batera beste lekuren batean il, zan.

Ona Josuŕen b-erpizkundea ukatzeaŕen norano jo duten adimentar batzuk.

Gurutzean il ote zan,ba, Josu ?

Kristauok auzi onen buruz ez daukagu iñungo kezkarik. Josu'ren gurutzeko eriotza garbi asko azaltzen digu Itun- Beŕiak. Itun-Beŕia izango degu auzi oneran gure agerkairik sendoena. Itun-Beŕiak diguna egia dau jakin bear ortarako orde...

Goteunak eragin-da idatsi zuten goizpargiŕeak Goizpargia,Itun-Beŕia, Goteuna Jainkozko degu ta Jainkoak ezin gezuŕik esan. Siñisgaŕia da ba, Goizpargia.

Guk orde auzi au erabakiteko Itun-Baŕia, Goteunaren eragiñez egiña danik ontzat artu ezaŕen, Itun-Baŕia edesti idasti izatea aski degu.

Eta ederti idasti bezela siñesmenik zor ote zaio Goizparkiari ? Iru galdera sortu zaizkigu bat-batean buruan. Edesti-idasti ote degu Itun-Beŕia ? Egia ote digute goizpargileak ? Ez ote ziguten Josu'ren izaterik aldatu ?

Iru galdera auéri bear bezela erantzuten ba diegu agiti da agitz goizparkia. Edesti-idasti ote degu Itun-Beŕia ? Itun-Beŕia edasti-idasti dala esateko Luka deunaren auŕe-itza ta Jon deunaren azken-itza irakurtzea aski degu. Luka deunak auxe digu: "Quoniam quidem multi conati sunt ordinare narrationem, quod in nobis completae sunt, rerum: sicut tradiderunt nibis, qui ab initio ipsi viderunt et ministri fuerunt sermonis; visum est mihi, assecuto omnia a principio diligenter, ex ordine tibi scribere, optime Teofile.". Jon doneak beŕiz "Idasto onetan idatzirik ez dauden mirari asko ere egin zituen Josu'k bere ikasleen begi-begietan. Auek orde Josukisto dala siñistu dezazuten idatziak dira." Mateo ta Marko doneak, ez digute euren asmoa ain garbi azaltzen. Idasteko eratik orde aien Goizperkiak ere edesti-idasti dirala, eŕez jakin genezake. Edesti-idasti degu ba Itun-Beŕia.

Egia ote digute goizpargiłeak ? - Goizpargiłeentzat egia esatea, gezuŕa esatea baño eŕezago zan. Luka alde batera utzitzen ba degu, gañeroko goizpargiłe guztiak ez-jakiñak ziran. Josukisto bezelako izaki bat euren buruetan jaio-erazi egiteko gauza ote ziran arantzale arlote aiek ? Itun-Beŕiko irakatsiak gañera iñoiz entzun eztakoak ziran juduentzat. Aŕantzale arlote oietan jaŕiko ote degu adimentaŕen aitoŕez ezin edeŕago diran Josu'ren irakatsi auen sustraia ? Aŕigaŕi litzake egiz. Josu gañera Palestina'ko gizonik ospetsuena izan zan. Goizpargiłeen egunetakoa, Josu'ren ikasle izan bait ziran goizpargiłeak, Palestina'ko biztanke geienak ezagutzen zuten Jodu, Baita Josu'ren ekintza geienak ere. Itun-Beŕian esaten zaigun nak gezur ba'lira, zabalduko ote zan, Juduen artean batez ere, zabaldum zan bezela Itun-Beŕirik ?

Ez ote ziguten Josu'ren izaterik aldatu ? Ona aragaŕen galdera. Zaila zan zaila ba da Josu'ren izatea aldatzea. Auŕ eta agure, gaste ta zaaŕak, jakitun eta ez-jakiñek danak ezagutzen zuten Josu. Goizparkiak darakusgun Josu ta Palestina'n

batetik bestera ibili izan zan Josu bat ezpa lire laister asko gezurpetuko zuten judutaŕak, Josu'ri buruz goizpargiĺeak zioten oro.

Eziñezkoa zan ba Josu'ren izate-al datze ori. Kisto'ren Jainkotasunik ezagutu nai ezdutenak bakaŕik ukatzen dute Itun-Baŕiaren egia.

Eta zer esaten digu Josu'ren gurutzeko eriotzari buruz ? Ona eman Marko denak esaten diguna: "Aŕatsldea sartu zanean (larunbat auŕeko Paskel eguna zala-ta) Arimataitaŕ Joseba'k...Pilato'gana etoŕi-ta Josu'ren soiña eskatu zion. Josu ain laister iltzeak aŕitu zuan Pilato ta euntariari otz egin eta Josu il ote zan galdetu zion. Eta orduan jakiñik, Josu'ren gorputza jasotzeko baimena eman zion Arimataitar Joseba'ri" -XV-42-

Itun-Beŕia egiti ba'da, garbi asko azaltzen Josu'ren gurutzeko eriotza. Gurutz iltzatuei anka-ezuŕak puskatzen ziozkaten eŕomataŕak. Gurutz iltzatuak lenago il zitezen egiten zan anka-ezuŕa puzkatze ori.

Josu ta beste lapur biak larunbat egunean gurutzean eukitzea lotsagaŕi zan Juduentzat. Pilatos'gana joan ziran ba ta gurutz iltzatuei anka-ezuŕak ausi-erazo zezaietela eskatu zioten. Bialdu zituan guda mutiĺak eta orduan "Etoŕi ziran ba guda mutiĺak -dasaigu Marko'k- eta lenengo ziko gurutz iltzatuari anka-ezuŕak ausi zizkioten baita arekin gurutzatua izan zan besterai ere. Josu'rengana etoŕi ziranean, ilik zegoala ta, ez zizkioten anka-ezuŕik ausi. Guda mutil batek orde aizta-makilagaz saietza zulatu zion" -XIX-52-

Beste bi goizpargiĺeak ere argim ta garbi azaltzen digute Josu'ren gurutzeko eriotza. Ikus bestela Marko ta Luka deunaren XV eta XXIII'garrenak.

Zertarako agerkai geiagorik ? Aski dira nere ustez;..Ala milaka agerkai ekaŕioko ba'genitu al peŕikoak lirazke siñistu nai ez duenentzt. Ez dago entzun nai ez duana bezin goŕik.

# Josu'ren Berbizkundea

(Jaŕaipena)

Ez dira egokiak oak beste uztari batzuk be, auzi ori azaltzen asten direanean. Onela diño M. Loisi'k: "Kurutzetik jetxi ta iĺunabaŕean, beste kurutziltzatu aien azur artean jaurti eben Josu'r-en gorputza eŕomatar gudariak".

Uztari oneik ez dira bardiñak. Batzuk, M.Loisi, Strauss, M.Guignebert ta abaŕek, Josu ez ebela iĺobiratu diñoskue. Ostu egin ebela beste batzuk. Judeaŕak ostu ebela diñosku E.Reville'k; emakume edo ikasleen batek ostu ebala E.Renan'ek, H.Holtz-mann'ek baŕiz Arimateatar Joseba'k artu ebala, ta beste tokien baten ipiñi ebala.

Zer atera leike uztari ez-bardin oietatik ? Uztari berekoi oieri ez daikiogu jaŕaitu. Alkar apurtzen dabe.

Baña, ez da bildurtzen M.Guignbert uztari oien ondoan. "Ezin siñistu g. inke, diño Guignbert'e ek, iĺobia utsik agertu zanik. Ede titik aldendu biarda, ba, gertaki ori izadi indar bidez ezin ge-inke azaldu ta. Ez ordea adimentaŕen iritzia dalako".

Egokia deritzait M.Guignebert'en iritzia. G ertakia ukatutzea da auzia azaltzeko biderik eŕezena. Ez da auzirik ba gertaki ori edestitik aldendu ezkero. Ondo daki Guignebert'ek gertaki bi oiek egitzat artu ezkero berbizkundea adiera-zo ta dagoana. Zergaitik ukatu ez ? Mirariririk-eta ez dau siñisten, beste biderik baŕiz ez dauko au-zia azaltzeko.

Baña ezagun jaku adimentaŕen guraria. Goizpar-ki-esaerak indargatu gura dabez alan edo olan. GO-izparkilariak gauza bardiñak ba'diñoez alkaŕei ar-tu dautsieła esango dabe; ez-bardin xamaŕak biĺa-tzen dabezanean baŕiz, alkar apurtzen dabela; Ez deiĺa eurek eŕez azaldu ezin daben gauzaren bat Goizpargian agertu, edestitik aldendu egingo dabe ta. Eta Goizparkia euren gurariz moztu ta azaltzeko nun dabe eskubidea ? Ez dabe biar be euren iritzi berekoia naikoa da-ta. Estuki alkartuak dagoz obir-akundea ta iĺobi-uts agerkundea. Ez dau indaŕik

lenengoak, bigaŕen au kendu ezkero. Begira orain zer diñoskun M.Guignebert'ek: "Alpeŕikoa da JOsu'ren berbizkundea adierazoteko gertaki ori agerkaitzat ekartea, ez eban apostoluen siñismenak gertaki ori oñaŕitzat euki ta. Josu'ren agerkundeak izan ziran apostoluentzat oñaŕirik gogoŕena. Berez jausten da beste, oñaŕi au kendu ezkero".

Eta egokia deritzaioe uztari au. Bai ba, Josu il-eta, beŕoigaŕen urtean asmaua dala diñue ilobi utsaren ipuin au ta...Ez egoan, baŕiz, aldi artan toki ori izentatzerik, Jerusalen'en azkenegunak zirean-da.

Zein indargabea dan M.Guignebert'en iritzia ezin leike esan. "Agerkundeak dira berbizkundearen oñaŕirik gogoŕena", Nork ukatu ? Goizpagileak orixe berori diñoskue. Baña, ..zer dala ta siñistu dabe gertaki ori kristiñau guztiak lenengo eraetatik azita, bat ere indaŕik ez ba'dauko ? Eta Goizparki guztiak, ain zearo, zergaitik dakardie ?

Josu'ren agerkundeak naikoa ba'ziran berbizkundea adierazoteko, siñistu ete laike beŕoigaŕen urtean agerkai oŕen bear izana ?

# kistaŕen oñaŕdeki

Begira emen Eleiz-sorkundeari buruz Ebanjelioak darekusguna: 'Egun aietan -Beŕi-Ona zabaltzeari ekin zionean- mendira bazterta zan Yesukisto otoi egitera,ta gau osoa zeraman Jainkoari otoiketan.Egundu zanean, bere ikasleak deitu ta aien artetik amabi auturik, Apostolu izena eman zien" -auxe esanaz-: "Zeru-luretan al izate guzia emana izan zait . Zoazte, beraz, ta eŕi guziei irakaskiezute Aitaren eta Semearen eta Goteunaren izenean ukuziz; ta agindu dizuedan guziak betetzen erakutziz".

Yesu'ren itz oiek ba'dute indaŕik: alde guzietara zabaldu ta erakusteko agindua damaie apostoluei. Eŕitaŕei, beŕiz, apostoluak erakusten diena

aintzat artzeko agindua. Amabi gizon oŕetxek bide nai izan bait zuan Yesukisto'k bere ludi ontako eginbeaŕa betetzea...Eleiza sortzea.

Ikus dezagun, baña, auŕera jo baño len, apostolu aiek zein erateko gizonak ziran; Yesukisto'k Eleiza sortzeko aukeratu zitun gizonok nolatakoak ziran:

Abendaz Judutaŕak ditugu.Judea...Abenda kaxkaŕa, iñork ere aintzat artzen ez zuan abenda... Galilea alderdikoak ditugu, gañera. Judutaŕak eurak ere ezetsi zegien alderdikoak ...Ala eŕe, Galilea ezerez orixe kutunen Yesukisto'k. Galileotaŕak begiz jo Yesu'k. Eta ez uste izan jakintzuenak, argienak, geien balio zutenak autu zituanik,Galileotaŕetatik ere xeonak nai izan [illegible] Kisto'k [illegible] gizaixo batzu.

Oŕez gañera siñiste uŕidunak ditugu apostoluok. Ez zuten beingoan Kisto'ren beŕi ikasi... Ebanjelioa zabaltzea aski degu: Itxasoan ekaitza sortu zitzaienean, "Yauna, lagun gaitzazu; galduak gera", dasaiote Yesu'ri. Eta Yesu'k ekaitza ibitu-erazi ondoren..."zein ote dek au -zeresaioten elkaŕi- aize ta itxasoa menderatzen zaizkiok eta".

Beste egun batez ere -aŕantzan ari zirala- "zergatik asi zera zalantzan, siniste-uŕidun ori", esan zion Yesu'k Kepa'ri. Zenbat era ontako dertakisun... Ez zuten, ez, beingoan Kisto ezagutu.

Aurtxo aiek Yesu'gana urbildu ziram artan ere, aŕo jeiki ziran apostuluak, eurtxoak uxatu naien. Kisto'ren ikaslek ziranez, goi-maŕaragoan zeudela zeritzaioen, nunbait.

Getsemani baratzean ere, Kisto etsaien mende zanean, ingurutik ere iges gizon makal aiek. Leentxeago oraindik Irakaslea zala-ta elkaŕen leia n denak. "ez Yauna,ez zaitzu oŕelakorik gertatuko" -zesaion batek-;Neka dirik ez zuala igaroko, alegia. Besteak, beŕiz, "guziok taputs egiñaren, ez det nik iñoiz ere egingo"..."zurekin il beaŕekotan ere, ez zaitut nik ukatuko"....t.a...Ordu laŕia eldu zanen, baña, agur Kisto'ren ikasle zintsoak

Oŕa apostuluak nolatakoak ziran laburki-laburki azaldu. Eta entzun ondo- ala ere, amabi gizon oŕetxek autu zituan Yesukisto'k mundua beŕitzeko, bere Eleiza sortzeko.

Zer dala-ta aukeratu ote zituan Yesu'k gizon alakoak ? , esango dezute.

-o-o-o-

Jarai dezaiogun sailari... Amabi gizon ezerez oien ordez, beste amabi gizon ospatsu aukera izan ba'litu, era ortako gizonak egingo ez dute, ba ?, esango lukete askok. Bestelako asmorik, ordea, Yesukisto'k. Yainko zanez, aundienak ere aukeratu aal izan, eta arantzale gixaixo batzu begiz jo. Zergaitik ?, didazute. - Zergaitik ? Eleiza Yaikoak sortua dala, Yainkoari esker diraula ta dirakela garbiroago ikas dezakegun; apostolu aiek berez,goi-laguntasunik bage lan gogor-yaungoikozko ari -Kistoren Eleiza sortu ta kistartasuna zabaltzeari- ekiteko ere gai ez zirala oartu dezakegun.Orexegatik bakarik.

Lan gogora, yaungoikozko lana... ditzuttet. Orixe bai...Danen aurka egin bear. Aundiak eta au aundi ez ziranak: gizik etsai... Eragozpenik izan zuten Kisto'ren ikasleak....

Gaur-egunez ere zuzen-legetik at gabiltzela-ta naigabez mintzatzen zaizkigu asko ta asko. Nagusikeriari, griña ta lizunkeriari eman diola gizarteak, diote.Egia danik ezin ukatu. Zer ote lezaiguteke; baña, leen-urteetako beri ba'lekite... Nagusikeria ? - Garai artan bestelakorik bai al zan, ba ? Gizon sal-eroskatak ere orduantxekoak ditugu. Nork ezagutu du ludia ludi danetikoan garai artan adiña mirabe edo esklabo ? Edestilari guziak, ao batez, iñoiz ere ezetz digute.
Eta zer esan, beriz, griña ta lizunkeriari buruz ? - Zer ? Esan bearik ere bai al dago, ba ? Aragikeria ta uztekkeriari ematsaren gezurezko jainkoak asmatu zituzten da ? Lazaikeri gorienak ere Yaungoikotzat artzeuzkaten-da ?

-o-o-o-o-o-o-o-

Sartu gaitean, baña, sailean barnerago. Apostolu ezerez aiek -len esan degunez- ezer onik egitekotan, gizartea zuzen-legeratu..... griña ta lizunkeriak menderatu bear zituzten, beraz. Lan gogora. Ala ere, gogoragorik izan ez ba'zuten....

-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o- Daraike

# Andik eta Emendik

Iñoiz edo beŕiz gizonik ikusi al dezute abarkak buruan jantzita ? - Orixere atera aldia duk, entzuten nago nor edo nori. Bañan bestan batek: "orduan abarkak ez dira ezertarako" -esango lizuke-. Zaude ixilik, gizona,oŕelako astakeririk esan gabe...-Astakeria dala? Alaxe ba da ere,ez da nerea eta ezaitezela beintzat ezea asaŕatu.Ona zaude oŕekin ikaratzen baźera;gero esatekotan neuzkanak entzuteko..¡Zuk ez dezu,nos ki,jakintzu-izeneko askoren beŕirik.Nik emango dizut oietako batzuena gaur.

Zuk ez uste aŕ aŕen,ba"diraberen soroa jeŕatzeari utzita etxekenekoenean lan egitea oso gogekoa zaienak,Maitusanu jario nunbait...ori lagundu beaŕak..¡Nortzuk diran jakin naiko dezu oŕelako gizon prestuak.Uzkurtaa zer dan jakin ez da Uzkurtza gaietan maixutza artzen dutenak, dituzu oŕelakoak.Oriek diotenez:"Uzkurtzak ez du gizonari zezeren auŕerapenik ekaŕi;beraz,zertarako Uzkurtza?"" Ori da ori.Ori diotenen ustez, Uzkurtzak gizonari sakela betetzen laguntzea beste egitekorik ez du.Gizona aberasteko bakaŕik sortua daUzkurtza.Aberasrasuna ta Uzkurtza, berŕaz, bata bestearikokoak dira. Begira, ordea, mundu zabalera,.ta txiroa ta beartsua besterik ez dagerkigu, ta zizak bezin ugari alaere. Tokitan zegok, bai, gure dirutan irari egitea... Zer derizkiozu ? Pipiak ez ditu bela joko orsingo itxuraz, ez dago bilduŕik...Neere eŕitaŕak esango lutekena; askas-usteko ez- jakin abek ba dutela zer edo zer guk ez deguna, edo inik al dakik zer... Erbi zakuŕak izan ba"lira, ez da trikuak ere ez zieten iges egingo... Ori da eskara begiratu beaŕa ori... Artea gogoŕa degula bañan oŕelekoen buruak bezin lur gogor eta moldakait zetan aldatua izan ba"litz, ezta tximis-

teak ere eztuan eŕeko. Oriek diotena,o sagiřeak etxerik ez dutela egin, edo argiñak iñor ez,dutela sen sendatu, esatea bezelaxe da. Eta ori egin ez dutelako, gizonentzat alpeŕikakoak dirala. -Oraindik ikusi bear degu, oŕaatik, gizona buruz azpi eta ankaz gora ibilten, bai...- Danadala, ez-jakiñai erakusteko irakasleak ba'ditugu, beŕntzat, eta artoa ere izango al degu emndik auŕera.

Uzkurtza ez da ez sakela betettzeko jaiotako aakumea. Ba'du elburua, ta ez nolanaikoa, bikaiñagorik ez bezelakoa. Ain bikaña ere, beragabetani nik ez giñezke egun baterako ere luŕaren gainean. Gorputz edo soñarentza t biotzak duan ainbat gaŕantzi edo ardura ba'du uzkurtzak gogo edo arimaren entzat, eŕa geiago oraindik.

Bera da ariltzen goazen bazitz onen maatiřea. Gure bizitzaria nai ta naiez maatil oŕetan bildu beaŕa dago, eten da galdu ez dedin, maaatiřik gabe aririk egin ezin dalako; galdetu bestela. Onekin ez det esan nai, luŕeko ondasunak uzkurtarekin zer-ikusirik ez dutenik. Ba dute ta ez txiki-txikia gañera.

Beraz, abarkak buruan jantzi ezagatik, ezin esan genezake ezertarako ez diranik. Sagaŕak ez dira txertatzen keizan eman ditzaten. Sagarpera ere ez da iñoiz iñor joaten gaiztaña biŕa.

-0-0-0-0-0- -0-0-0

Eta onoko beste abek ere. Irakurle, gonde askapren bat daukagu iñolaz erā munduan. Irakasleak gutxitu beaŕean izango gera edo bestela ez degu kurutzen, Geiegi ikasteari bilduŕa artzen az aziak ba'dira beŕentzat eta...Ara zer diguten gizon argi oiek (ta ez aastu gero, ipurtargiak ere argi oi duela) Uzkurtza asko omen dira ta onena zein dan norberak aukeratu bear du. Oŕetarako, beŕiz, nai ta naiezkoa uzkurtz oiek zenbat eta zein diran auŕe z ezagutzea. Eta ori erakutsi beae du ben maixuak ez dute uzkutz batekin bestaekin baño geiago kutxututa egon bear, biotzez ez baño buruz jokatu bear dalako lan onetan; aun da: uzkurtzatzaz mintza bear dutenak ez dute uzkurtzik bear, bestela baten aldera geiago eroriko bait lirake. Bañan, ori dionak zer dion ere ez daki. Ori mutua itzketan jartzea edo aŕtea izango litzake. Itxu batek besteari nola ikusten dan erakustea

bezelaxe. Etxeko beři etxekoak jakitzen dute obdoena, dio eusko-esaera batek. Eta egi galanta alaere Ařantzan nola egiten dan jakin nai ba'dezute, ez joan arakiñari galdetzera, ařantzaleari baizik. Udaspiko beři ala ařaiak ote daki ondoena ? Udaspian nola bizitzen dan jakin nai duanak ařai bedi, ta baldin ezin ba'du bestiak dionarekin geldi bedi. Ikaskiña osagiře bati operazio bat nola egin bear dan erakusten jartzea, zer derizkiozute ? Ala ere, ařa beteren alderik ez legoke au egitetik beste askar oieik diotenema. Zer egingo degu bada, gu ez beste guziak maixu izateko jaioak ditugu nunbait eta... Bañan, erantzun galdera bati: Nork ikusten du gauza ondoena, uřutiña dagoenak ala gertuenekoak ? Erantzun bakařa du. Uřutitik begiratuta sagar sastraka tatetzat emanařen ba'lite gerturatutakoaan sagar sastrakatzat jo deguna gizon gertatzea.

Ořek esan nai du gauzak ez direla egi guk nai ditugulako. Bi ta bi, askar oiek eta guk naiko ez ba'genduke ere, lau izango lirake orain eta beti eta leku guzietan. Ori bezelako beste egi gelaga ere bad'dira. Eta egi oiek, gure baltan ez dauden ezkero, deřigořean ezagutu beařak ditugu. Ez bait dago izate-egiaro iges egingo dion gogoazkatasunik. Ořietako bat degu Uzkurtza. Uzkurtzak egi bat du. Ezin leike, orduan, ajola gabea izan egi ori, au da, era askořako egiak, bakar bakařa baizik. Uzkurtza askotan egizkoa bat bakařa ba'da beraren biřa sařatu ta ezagutzea bear beařekoa zaio gizonari. Egia, ordea, dakiñak baño obetogo nork erakutsi lezake ? Ara, ibiři ta ibiři, nora jotzen degun azkenean...Izketan asi ezkero nai litzake, bada, egia esan...Bañan ikusten danez, itz egiten duten guziak ez diote egia beti beti. Egia igesi dijoala dirudi luditik, agian ezagutuko ez duten bilduřez...Uzkurtz egizkoa bakařa dala esan det; maite dezagun bada, ez gurea dalako, bañan bai egiz dalako, ta zerd dan ondo dakienak azaldu digulako.

/:/:/:/:/:/:/:/:/:/:/:

# Gorriñak jola....

"Charta linguistica" baterako galderadi bat azaldu geñduan orain bi urte apaizgaiok. Erantzun asko jaso genituan eta oraindik ere jasatzen ditggu. Pozgarri baño negargarri geiago dakarkigute erantzun oiek. Gaixorik daukagu euskera maitea.

Erangzun oiek banan banan azaltzeko toki asko nai litzake eta beta ere bai. Bietatik gabiltza gaur ordea urri. Gañera gauza mingarri askotxo dakarte danak batean argitaratzeko. Eta dakarten egi garratz guzia ere ezin gentzake esan; berriz non omnia licent. Orregaitik iñorentzat mingarrienak diran puskatxoak kendu-ta bat edo beste azalduko ditugu gaur. Bizkaitik bi erri aukeratu ditugu azal-gai. Gipuzkoa'tik beste bi. Aukeratzen ibilli gabe eskura etorri zizkigunak dituzu irakurle. Irakurriarren ta gero zuk ikusi zer egin leikean euskera gaixoaren zauriak sendatzeko.

AMASA-BILLABONA.

Tolosa'tk Andoainn bitartean dago. Bi milla biztanle ditu, I.800 inguru dira kaletarrak. 800 baserritarrak. Kaleko gurasoak, banaka batzuk kendu ezkero, erderaz itz egiten diete umeai. Beren artean euskeraz mintzatzen dira gurasoak. Kalean 40 sendi edo dira euskaldun uts; gañerakoak euskaldunak dira, jakiña. I7 urtetik berakoak euskaldun zintso-zintso semeak izan ezik, ez d akite euskeril gutxi beñepein.

Baserritarak euskeraz etxean, Umeari ere euskeraz mintzatzen zaizkie. Kaleko umeak ez dute itzik ere egiten euskeraz kalean. Baserritik datozenak ere kalean erderaz, jakin-jakin batzuek izan ezik. Umetatik irtenak giza-semezkoak poliki erabi. tzend dute euskera. Erdera geiago, alere. Emakumezkoak, erdera utsa. Euskeraz itz egiten duten banka batzuk ere ba'dira. Ume jolasak erderaz geienak Eleizan itzaldiak euskeraz egiten dira. Bizpairu elizkisun egiten dira erderaz. "Viernes reparadores", eta "Asociación del Rosario"k dituzten elizkisunak erderaz. "Boletín" irakurtzea ere bai sarr itan. Billabona'ko elizan abestiak euskeraz; len erderaz ere egiten omen ziran. Amasa'koan erderaz er

bai oraindik. Baseŕi aldeko eliza da Amasa'koa. Irakasleak erdeldun utsak geienetan. Ikastol orduetan erderaz mintzatzen galerazita. Ikastoletan euskeraz ez du Kristau-Ikasbidea besterik erakutsi izan. Lekaide-lekaimeak ez dute ezer egiten euskera alde.

ARIETA

Gernika'tik amaika Km. Mungia'tik zazpi. Soŕube mendi gibelean Bermeo. 230 sendi dira Aŕieta'n, gutxi gora bera. I5 inguru kaletaŕak. Gañerakoak baseŕitaŕak. Iraskaslienak ezan ezik, euskeraz mintzatzen dira Aŕieta'ko sendiak. Bilbo ta Bilbo inguruko eŕietara neskatx asko joeten da miŕabetzara. Erderak dirua dakaŕela uste da eŕian. Beti euskera entzuten da Aŕieta'n. Erderazko ume jolas batzuk ba'dira. Mirabetzan ikasitako erdera saŕitan azaltzen dute neskatxak euren artean. Giza-semeak euskeraz beti. Elizati dago kion itzaldi, bederatziuŕun, kristau-ikasbide ta a... euskeraz oro. Irakasleak ez dakite euskerarik. Bein egon da, oŕea'tik euskeldun irakasle bat. Ikastoletan, jakiña, ez du e...kerik egiten, irak'slearen baimenaz beñepein. Irakatsi, beriz, zer esanik ez. Uda zale ta irakaslegaiaren batzuk kendu ezkero, Aŕieta'ko txoko guztietan ez da euskera besterik entzuten.

EA

Ipistar eta Elantxobe bitartian dago. Gutxi gora bera Ea'ko kaskoak I50 sendi ditu. Natxitu'k 80 inguru. Bedarona'k 45. Ea'ko kaskoa kale-esten da. Natxitu ta Bedarona, beŕiz, baseŕi. I50 sendi kaletar dira beraz; eta I25 sendi baseŕitar. Etxeetan euskera erabiltzen da. Alde batzuetan erdara baña euskera gutxiago, zabartasunez. Karabiñeruak-edo kendu ezkero, danak dakite euskeraz. Kalean bitara entzuten da. Udaran aŕotz asko etortzen da ta erdera geien bezela azaltzen da. Negoan euskera nagusitzen da kalean ere. Baseŕisendiak beti euskeraz mintzatzen dira, be ar bearen izan ezik. Ume jolasak, kalean beintzat, geienak erderaz. Mutikoak baño neska koxkoŕak erdera geiago darabilte. Kaleko gastediak, emakumezkoak bebarmenki, udaran erdera geiago, neguan gutxiago. Kaleko gizon eta emakume-egiñak berdintsu; alere oiek zintzoago eusten diote euskerari udaran ere.

Eleiz-gauzetan euskeraz beti. Gotzai-idasti edo ořelakoren bat kendu ezkero. Karabiñero ta aba ařei erderaz itzalditxo bat mesa ostean. Ořelakoen semeai Kristau-Ikasbidea ere erderaz. Natzitukoe emakumezko irakaslea euskaltzalea da. Aldundiak jařia bera. Gañerakoak erder-zale puřukatuak. Ikastoletan ezik, kalean ere erderaz itx egitea agintzen diete umeai. Natxitukoak ez. Kaleko estatuetan euskeraa ta erder az egiten da. Baseřikoetan euskeraz; Antzerkiak euskeraz. Kanpoko lekaide lekaime etxeetan ikasitako mutil neskatxak oso erdaldunduta etortzen dira Ea'ra.

AZPEITIA.

I.500 baseřitan inguru ditu, 20 senditen-edo erderaa egiten da. Batzuetan erdeldunak diralako; bestetzuetan erdera eder-esten dutelako. "Guardia-Civil" eta Urala'ko burni biderako ekařitako langiře batzuk ere ez dakite euskerik. Baseřitar etxetan beti euskeraz mintzatzean dira. Mutikoak euskeraz kalean ere. Neska-gendea erderaz geiena. Ume jolasak erderaz geien. Mutil gasteak euskeraz. Neskatxa gasteak erderaz pařa-pařa. Eliz-otoitz, itzaldi, abesti t.a. euskeraz. Apaizak ere erderaz mintzatzen dira geienean beren artean. "Adoración Nocturna" erderaz egiten da Azpeitian. Langiře ta ořelako jaun puntakoak ere erderaz mintzatzen dira apaiz eta abařekin. Ikastoletan ez dugu euskeraz mintzatzea galerazi-ta. Lekaimek kalte aundia dagiote euskerari; ikaragařia. Azpeiti'ko emakumeen erderarako joera lekaimeetatik dator. Etxean ere "buenos días" esateko agintzen die. Ortik atera gañerakoa.... Maristak peliki. Ba'dezakete geiago euskera alde. Eřiko maixu ta maistrak ez dakite euskerarik. Senar-emazte ciek 200'dik gora neska-mutil izaten dituzte. Euskera alde ezer ere ez. Ortik datořen kaltea....

Irakurle, zure eřian nola dago euskera ? Bizi-dalakoa bakařik ? Ala bizkor ? Erantzun nai al diguzu ? Eskatu galderaldiak, "Yakintz-Bide-Batza" ko Euskaltzaliei.

:):):):):):):):):):):

